

EDP XXI CONGRESS
21 NOVEMBER
BILBAO EXHIBITION CENTRE

ALL
WE
need is
DEMOCRACY



Bilboko adierazpena aniztasunaren inguruan

Europako Demokraten adierazpena ordezkaritza inklusiboaren inguruan

Bilbon, 2025eko azaroaren 21ean

Europako Alderdi Demokratiko kide garen alderdi politikook, PDeren Kongresuan bilduta, honen bidez berresten dugu bizitza politikoan eman beharreko aniztasun, berdintasun eta inklusioarekiko konpromiso irmoa. Demokrata garen aldetik, uste osoa dugu pertsona guztiok, dena delako genero, jatorri, etnia, sexu-orientazio, adin, gaitasun edo sinesmen erlijiosoa dutela, eskubide berbera izan behar dutela gure kontinentearen etorkizuna erabakitzeke orduan.

Gure konpromisoak

1. Komunitate guztien parte hartze politikoa sustatzea.

Aitortzen dugu garrantzitsua dela gizartean diren sektore guztiek parte hartze politiko aktiboa izatea, botoa ematek hasita eta erabakiak hartzeko organoetan ordezkaritza izateraino. Demokraziek aurrera egiten dute hiritar guztiek ahotsa dutenean.

2. Alderdi politikoetan egitura inklusibo eta ordezkatzailerak sortzea.

Gure barne prozesuak sendotuko ditugu erkidego gutxituetako eta azpi ordezkaturik dauden erkidegoetako pertsonen aukerak izan ditzaten gure misio demokratiko partekatua lideratzeko, eta haren aldeko laguntza esanguratsua emateko.

3. Teknologia, inklusioa sustatzeko tresna gisa.

Berrikuntza digitala onartzen dugu, jatorri guztietako pertsonak ahalduzko eta prestatzeko tresna den aldetik; bereziki, parte hartzeko orduan oztopoak aurkitzen dituzten horiek, bizitza publikoan eta zerbitzu publikoan inplikatu daitezten.

4. Gobernu maila guztietan ordezkaturik egotea defendatzea.

Gutxiengoak eta azpi ordezkaturik dauden taldeak bizitza politikoan parte hartzera animatu eta bultzatuko dituen ingurua sustatzea hitz ematen dugu, ikusmolde askotarikoak izateak gobernantza demokratikoa sendotzen duela aitortuz.

EDP XXI CONGRESS
21 NOVEMBER
BILBAO EXHIBITION CENTRE

ALL
WE
need is
DEMOCRACY



5. Sareak eta aliantzak sustatzea, parte hartze politikorako baldintzak denontzat berdinak izan daitezen.

Ordezkaritza inklusiboaren alde eginez, elkarren arteko trukeak, ikaskuntza eta elkartasuna bultzatuko dituzten plataforma, talde eta elkarteen sorrera sustatzen dugu.

6. Eskubide-berdintasuna guztiontzat, egon daitezkeen oztopoak aintzat hartuz.

Eskubideak unibertsalak eta berdinak dira pertsona guztiontzat. Bizitza errealean ezberdintasunak metatzean (generoa, jatorria, sexu-orientazioa, desgaitasuna, adina) oztopo gehigarriak sor ditzakete. Horrek ez du justifikatzen gizartearen mikro-identitateetan zatikatzea; alderantziz, printzipioetan oinarritutako politikak diseinatzea esan nahi du, unibertsalak izan daitezela, oztopo horiek ezabatzeke berariazko tresnekin, unitate isolaturik edo jerarkiarik sortu gabe.

7. Inklusioa gure sortze-printzipioetan jasotzea.

Gure estatutuetan jasoko dugu aniztasunarekiko, berdintasunarekiko eta Europa osoan gutxiengoaren eskubideen defentsarekiko konpromiso irmoa, balore horiek gure ekintza politiko guztiak gidatzea bermatuz.

Gure erantzukizun demokratikoa:

Guk, demokratok, batuta jarraitzen dugu diskriminazioaren, gorrotoaren eta bazterkeriaren aurrean. Gure gizarteak zatitzea edo edozein norbanakoren eskubideak ahultzea bilatzen duten erretorika eta ekintzak gaitzesten ditugu. Gure zeregina da Europa ireki, inklusibo eta parte hartzailea eraikitzea, non demokrazia pertsona guztion aniztasunaren bidez indartuko baita.